

EUSKADIKO ARTISAU- GARAGARDOAREN EGOERA 2018AN

2018



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AURKEZPENA

Aurrenekoz Euskadiko artisau-garagardoaren egoerari buruzko txostena aurkeztu da, 2018an garagardoaren sektoreak izandako datuez baliatuz.

Euskadiko artisau-garagardo fabrika guztiekin egindako inkestak oso partaidetza handia izan du. Fabriken %92ak parte hartu du eta agerian gelditu da sektoreak bere datu propioak izan ditzan beharrez, etorkizunari ahalik eta informazio anitzenarekin aurre egin ahal izateko.

“Txosten tekniko honetan Euskadiko 22 garagardotegietatik 20k parte hartu dute”

EGEk (Euskal Garagardo Elkartea – Basque Beer) sustatu eta Eusko Jaurlaritzako Abeltzaintza, Arrantza eta Elikagaigintza Politikaren babespean BBFk (Barcelona Beer Festival) zuzendutako galdetegi-lan honen arabera 22 garagardo-fabrika daude Euskadin eta horietatik erdia azken bost urteetan zabaldu dituzte. 2014. urtea izan zen fabriken jaiotzari dagokionez emankorra eta azkeneko bi urteetan egonkortu egin da egoera, urtez urte fabrika berri bat zabalduz.

Ekoizpenari dagokionez azken bi urteetan urteko %30eko igoera egonkortu da eta 2018an zehar Euskadin lehen aldiz milioi bat litro garagardo

baino gehiago ekoiztu dira.

Sektoreak momentuz 76 lanpostu eragiten ditu zeharka, eta garagardotegien %85ak datorren hiru urteetan bere lantaldea handituko duela iragarri du.

Sektorea barne-merkatuan finkatzen ari da eta merkatu horri craft beer markaren baloreak eta izen ona helarazteko ardura agerian utzi dute garagardotegi asko eta askok. Halere, azpimarkatzekoa da baita hain gaztea den sektorearen internazionalizazioa, salmenten %19a gure mugaldeen kanpo esportatzen baitute.

“125.000 litrotik gora ekoiztu dira 2018an, aurreko urtean baino %30 gehiago”


Datu-bilketa honi gainbegiratu bat ematera gonbidatzen zaituztegu eta bide batez erronka honetan inplikaturako lagun guztiei gure garagardoa ekoiztu, sustatu, saldu, gozatu eta azken baten handiago egiteko inbertitutako denbora, esfortzua eta pasioa eskertu nahi diegu.

Jabier Ortega

Presidente de Euskal
Garagardo Elkartea



PARTE HARTU DUTEN GARAGARDOTEGIAK



1  **Olañeta**
Errenteria - Gipuzkoa

3  **Baías**
Urkabustaiz - Araba

5  **Etxeandia**
Urduliz - Bizkaia

7  **Olbea**
Agurain - Araba

9  **Gar & Gar**
Donostia - Gipuzkoa

11  **Urban Beer**
Zamudio - Bizkaia

13  **Boga**
Mungia - Bizkaia

15  **Txorierra**
Sondika - Bizkaia

17  **Maiken**
Balmaseda - Bizkaia

19  **La Salve**
Bilbo - Bizkaia

2  **Laugar**
Gordexola - Bizkaia

4  **Bidassoa**
Irun - Gipuzkoa

6  **Zarautz**
Zarautz - Gipuzkoa

8  **Tito Blas**
Gorliz - Bizkaia

10  **Byra**
Iruña Oka - Araba

12  **Mala Gissona**
Oiartzun - Gipuzkoa

14  **Basqueland**
Hernani - Gipuzkoa

16  **Gross**
Donostia - Gipuzkoa

18  **Basquerry**
Bilbo - Bizkaia


20  **Basebe**
Legorreta - Gipuzkoa

EUSKADIKO FABRIKAK

Txosten tekniko hau Euskadin artisau erara ekoizten duten garagardotegietan egin da eta ekoizpen-datuak 2018. urtekoak dira. RGSEAAren erregistroa eta beraien establezimenduetan ekoiztutako garagardoa azken kontsumitzaileari saltzen dioten establezimendu txikizkariak (brewpubs legez ezagunak) hartu dira oinarritzat. Guztira 24 enpresa-proiektu erregistratu dira:

horietako batek ez du inoiz jarduerarik izan eta beste batek 2018a ondoren hasi du bere jarduera. Gainontzeko 22 garagardotegietatik bik baino ez diote uko egin proiektu honi. Beraz, guztira Euskadiko garagardotegien %91k parte hartu du galdetegian.

FABRIKEN SORRERA





Galderak zazpi ezparrutan banatu ziren (hasierako datuak, ekoizpena, enplegua, produktua, salmentak eta banaketa, garagardo-turismoa eta etorkizunerako kakoak). SurveyGizmo software espezializatua erabili zen inkestak online bidez egiteko eta fabrikekin harremanetan jartzeko, proiektua azaldu eta parte hartu zezaten animatzeko.

Proiektu aitzindari gutxi batzurekin, artisau-garagardoaren mugimendua 2012an bizkortu zen Euskadin eta 2014a izan zuen bere urterik emankorrena, 7 fabrika sortu baitzituzten urte horretan. Orrialde honetako grafikoan ikusi daitezke xehetasunak.

Garagardoegileak lurralde osoan zehar sakabanatuta daude: hiru Araban, 10 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan. Aipatutako 24 proiektuetatik bost hiriburuetan daude eta hamabi 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan. Biztanleko proiektu kopurua (98.000 biztanleko garagardotegi bat dago Euskadin) garagardoaren sektoreak bizi duen unearen adierazle ona da, batik bat garagardoaren kultura errotuagoa daukaten inguruko herrialdeekin konparatuz. Esanguratsua da Euskadiko batz bestekoa Espainia osokoa baino baixuagoa izatea, euskal lurraldean garagardoaren ezarpena finkatuago egon arren.

GARAGARDOTEGIKO BIZTANLEAK



EKOIZPENA

Txosteneko daturik esanguratsuenetako bat herrialdeko artisau-garagardoaren ekoizpen osoari dagokiona da. Sektoreak 1.252.513 litro ekoiztu ditu 2018an zehar, aurrenekoz milioi bat litroko muga gaindituz. Aurreko bost urteetako ekoizpen-datuak ere jaso dira, 2013koa lehena izanik.

Lehenengo urtean 80.000 litro baino ez zirela ekoizten haintzat hartuta, sektoreak jasan duen igoera agerian utzi du azken urteetako garapenak. Bost urte hazkorretan 15 aldiz handitu da jatorriko bolumena. Lehenengo urteetako hazkunde nabarmena agerian uzten duten datuak normaltasunaren barnean kokatu ditzakegu, urte batetik bestera bikoiztu beharrean urtez urte igotzen joan delako, 2018an 2017arekiko %31ko igoerara iritsi arte.

EKOIZTUTAKO LITRO-KOPURUKO FABRIKEN ZENBATEKOA



Hazkunde hau erlatibizatu beharra dago, urtez urte sortuz joan diren artisau-garagardo fabrika kopuruak baldintzatzen baitu. Aurreko orrialdeko grafikoa ikusiz, ulargarria da hazkunde handiena izan zuen urteak fabrika berrien agerpenarekin bat egitea. Hala, guztiz ulerterraza da 2014a eta 2015a batatz beste artisau-garagardoaren ekoizpen hazkunderik handiena jasan duten urteak izatea, 2014ean Euskadin garagardotegi-kopurua bikoiztu zen heinean.


Beste datu esanguratsu bat garagardoaren urtez urteko ekoizpenaren bolumena da. Ekoiztutako litro kopurua garagardo-proiektuen balioekin lotuta dago erabat, besteak beste negozio-bolumenarekin eta langile-kopuruarekin. Bestalde, euren garagardoa banaketa-ildoan bidez saltzeko ekoizten duten garagardotegileak beraien lokaletan ekoizten dutenetatik (azken

hauek gehienetan errestituzioarekin zerikusia daukate) bereiztu beharra dago.

“Euskadin 2018an 1.250.000 artisau-garagardo litro ekoiztu ziren”

Orrialde honetan bertan daukagun grafikoari begiradaxo bat botaz gero nabarmentzen da 50.000 litro baino gutxiago ekoizten dituela proiektuen gehiengoak, pertsona bakarrak gidatutako proiektuak baitira, bestelako zereginak baldintzatuta. Badira 100.000 litroko ekoizpena iristen ez diren beste lau proiektu, baina proiektu nagusietan (hiru dira Euskadin) agertzen da espezializazio profesionala enpresa-azpiegituraren barnean.

GUZTIRA EKOIZTUTAKO LITRO-KOPURUA



MERKATU KUOTA

Fabriken eta orokorrean sektore osoaren hazkundea ulertzeko beste datu adierazgarri bat ekoiztutako litroen batz bestekoa fabriken kopuruarekin banatuz gero lortzen dena da. Lehenengo urteetako datuak fabrika berrien sorrera eta hasieraren garaiarekin bat datozen balioak dira. Ulergarria da fabrika bakoitzeko bolumena txikia izatea.


Nolabaiteko egonkortze-fasearen ondoren garagardoaren batz bestekoa modu esanguratsuan igoko da urtez urte. Garrantzitsuena ez da fabrika berriak sortzea, daudenak egonkortu daitezen eta urteetan zehar hazkunde iraunkorra izan dezaten baino.

Batz bestekoaren ildotik garardotegi-eredu bakar bat ezartzeak zentsurik ez daukan arren, 2018ko batz besteko 62.625 urteko litroko zifra hazkunde fase baten sektoreak daukan osasun onaren adierazle da. Erreferentzia legez, lehenago artisau-garagardo mugimendua hasi zuten bestelako herrialdeena baino onagoa da datu hau. Esaterako, Katalunian ekoizpena batz beste urteko 51.300 litrokoa da.

Garagardoa edari ezaguna da eta presente dago gizarteko hainbat eremutan, besteak beste ezparru gastronomiko, ludiko eta sozialetan. Lagun askoren eguneroko bizitzan lekutxo bat dauka garagardoak. Euskadin 2018. urtean 131,6 milioi litro kontsumitu ziren guztira. Beraz, artisau-garagardoaren ekoizpen-kuota %0,95 ekoa da kontsumitutako garagardoarekin konparatuz.

“Ehun garagardotatik bat artisau erara egindakoa da eta merkatuko %2,1a suposatzen du”.

Merkatu-kuotaren kontzeptua sektorearen salmenten globalarekiko salmenten portzentaia bezala ulertzen da eta ondorioz prezio bateratuak garrantzi handia dauka bere kalkuluan. Artisau erara ekoiztutako litroek industria-garagardoak baino negozio bolumen handiagoa eragiten dute, kostu bateratu txikiagoarekin. Horrela, Euskadiko merkatu-kuota %2,1n kokatu da.



%0.95
EKOIZPEN-KUOTA

%2.1
MERKATU-KUOTA

GARAGARDOA

Sektoreko benetako protagonista garagardoa bera da. Artisautzaren munduak estilo historikoak berreskuratu ditu gizartearentzat eta garagardoaren sektoreari aniztasun handia eskaini dio, bere ezaugarriekin jokatzuz: ikusmena, usaina, zaporea, ahoan eragiten dituen sentrazioak eta graduazioa.

Ikerlan honetan parte hartu duten 20 garagardotegiak barne hartuta, Euskadin 292 garagardo desberdin elaboratu zituzten 2018an. Kopuru hau artisautzaren munduan dagoen aniztasun handiaren adibide argi bat da, garagardotegi bakoitzeko 15 bat erreferentzia desberdin baitaude batzuetan. Garagardo tipologia bi bereizi ohi dituzte: batetik, oinarritzko gama osatzen duten haiek, urte osoan zehar ekoizten direnak, beti stock-ean, garagardoarentzat esanturatsuenak direnak, haiengandik ezagunak izan daitezkeen nahi baitute; beste aldean, edizio berezi bezala edota denboraldiko garagardo lege ezagunak diren garagardo motak daude, soilik urteko garai zehatz batzuetan lantzen direnak, eta zenbait kasutan behin baten. Ez da stock-ik aurreikusten eta ekoiztutakoa amaitzen denean ez da berritzen.

Dauden 292 garagardoetatik 125 oinarritzko gamari dagozkio eta 167 edizio bereziak dira. Datu hauen arabera oinarritzko gama batzuetan beste sei garagardok osatzen dute eta garagardotegiek guztira zortzi garagardo gehigarri egiten dituzte urtean zehar.



125
OINARRIZKO GAMA



167
EDIZIO BEREZIAK

Txosten honetan arreta handia eskaini zitzaion bertako lehengaien erabilerari, lurraldearen eta nekazaritzaren arteko lotura artisautza-sektorearen oinarritzat baitzeukaten. Honela, hamabi sagardotegik (%60) lehengaiak erabili ohi dituztela eta ekoizpena xehetasun gehiagorekin aztertuz gero, erabilitako malten %26a bertakoak direla ikus daiteke. Garagardoaren elaborazioan hain garrantzitsua den lupuluari dagokionez zifra %7koa da.

"2018an dauden 292 garagardo desberdinak sektorearen sormen handiaren adierazle dira"

Garagardogintzan praktika berriztatzaileetako bat egurrezko barriken erabilera da, bestelako edari alkoholikoak eduki badituzte zein ez. Gai honi buruzko galderei erantzunez, zazpi garagardotegik (%35) adierazi zuten praktika hau erabiltzen dutela, nortasun handiagoa eta balio erantsi garrantzitsuagoa daukan garagardoa landuz.

Ontziratze fasean, botila edo potoaren formatu txikia (%53) eta upelaren formatu handia (%47) nahiko modu orekatuan erabiltzen dituztela ondorioztatu zen. Azpimarkatzekoa da dagoeneko bost garagardotegik egin dutela poto formatua haien paper-zorroetan erabiltzeko apostua, artisau-garagardoaren tendentzia globala jarraituz.




ENPLEGUAREN SORKUNTZA

“Artisau-garagardoak Euskadin 76 lanpostu zuzen sortu ditu garagardotegietan. Zalantzarik gabe, hemen balio-kateko gainontzeko ogibide edo okupazioak gehitu beharko genituzke: nekazal sektorea, banaketa eta salmenta azkeneko puntuan. Txosten tekniko honen irismenera heltzen ez bada ere, garagardoaren sektorean eginiko antzeko ikerlanetan lanbide zuzenak sortutako enpleguaren globalaren zati txikiago bat suposatzen du, batik bat errestaurazioan sortzen dena azpimarkatuz.

Fabriken erdia (hamar) langile batek edo bik diseinatutako proiektuei dagozkio. Bost dira 3-6 langilek osatutako fabrikak. Azkenik, bost fabriketan sei langile baino gehiago aurkituko ditugu, gehien jota bederatziz. Horrek adierazten digu garagordegi-mota hauek mikro-enpresen azpiegiturretan kokatuta daudela.

Lan-perfila 24 eta 35 urte arteko (%36) gizonari (%87) dagokio. Bazkide-sortzaile rola dauka (%60), lanaldi osoan dihardu (%79), goi-mailako heziketa dauka (%66) eta ez dauka garagardoan formakuntza espezifikorik (%66), 18k€ eta 24k€ko bataz besteko soldatarekin (%26).



76

**LANPOSTU ZUZEN
ARTISAU-GARAGARDOAREN
SEKTOREAN**



URTEAN 26.500 LITRO



URTEAN 550.000 LITRO

Artisau-garagardoaren ekoizpen osoa langile-kopuruarekin banatzen badugu, horietako bakoitzak batz bestea 16.500 litro elaboratzen dituela ikus dezakegu, datu hau garagardotegiaren tamainuaren arabera oso aldakorra izan badaiteke ere. Industria-garagardoaren sektorean langile bakoitzak 550.000 litro sortzen ditu urtean. Beraz, ez da astakeria artisau-garagardoak ekoiztutako litroko 33 aldiz enplegu gehiago sortzen dituela esatea. Herrialde osoan zehar sakabanatutako lanpostuez ari gara, ez soilik hiriburu handietakoez.

Lan-taldeen kopuruak jasan dituen gora-beherei dagokienez, garagardotegien heren bat baino gehiagok (20tik 7k) haien langile kopurua handitu dute 2018an, sektorearen hazkundera agerian utziz. Gainera, parte hartu duten garagardotegien ia erdiak (20tik 9k) beraien postuetako bat betetzeko zailtasunak dituztela adierazi dute. Eskaera gehien dituen postua merkataritza-arkokoa da eta bigarrena, ekoizpenari dagokiona.


Garagardoaren ekoizpen-jardueraren ildotik ekonomia, kultura eta gizartea uztartzen dituzten ekimenak bultzatzen dituzte, besteak beste haien instalazioetan bisitariak jasoz. Gehiengoak (20tik 18k) jarduerak aitortzen dituzte, ondoko hauek nagusiak izanik: bisita gidatuak (18 garagardotegitan egiten dituzte), dastatzea eta bat egitea (17), kont-

zertuak (7), kultur jarduerak (6) eta garagardoaren elaborazio-tailerrak (4). Guztira 12.000 bat lagunek parte hartu dute urtean zehar garagardotegiek antolatutako jardueretan. Bereziki garrantzitsua da ezparru hau biztanleria txikiko herrietan, garagardoak herriko gizarte eta kultur-bizitzan aktibazio eta kohesio rola bere egiten baitu.

“Guztira 12.000 bat lagunek parte hartu zuten artisau-garagardotegiek antolatutako ekitaldietan”

Garagardotegiek beraien giza-baliabideak bost arlotan banatzen dituzte: ekoizpena (%37), kudeaketa (%24), marketing-a (%9) eta banaketa (%9). Azpimarkatzekoa da ekoizpenaren ezparruak daukan garrantzia, jarduera nagusi legez. Izan ere, artisau-jardueran elaborazioan egiten da lanik nekezena. Gestio eta merkataritza arloetan antzerako esfortzuak egiten dituzte eta marketing-a eta banaketa maila txikiago baten geratzen zaizkigu, lehenak oraindik garapen gutxi daukalako sektorean eta banaketa, berriz, kanpora ateratzen dutelako kasu askotan.

BANAKETA RRHH



SALMENTA ETA BANAKETA

Bloke honetan garagardo-proiektuen merkataritza arloko xehetasunak hartu dira kontuan. Horrela, banaketa, esportazioa, bitartekoentzako elaborazioa eta salmenta-puntuen gakoak aztertu ditugu.

Lau garagardotegik beraien banaketa-sistema propioa daukate %100ean, beste bostek kanpora atera dute eta gainontzeko hamaiketik bien arteko nahasketan oinarritutako ereduarenganako apostua egin dute. Jasotako datuak zehatzago aztertuz esan genezake Euskadiko artisau-garagardoaren %78a banatzaile bidez komertzializatzen dela eta %22a zuzeneko salmentaren bitartez, fabrikatik bertatik.

Artisau-garagardoak bere DNAn darama gertutasunaren kontzeptua, bai lehengaietan eta baita kontsumoan ere. Hala, ekoizpenaren %43a fabrikaren 30 kilometroko inguruan kontsumitzen dute eta %54a Euskadin kontsumitzen da.

Espezializatutako lokalean egiten den salmentak salmenta-kopuru osoaren %49a suposatzen du. Sektorean establezimendu-mota hauek daukaten garrantzia nabarmena da, sektoreak artisau-garagardoaren kultura azaldu eta barreiatzeko daukan gaitasunagatik.

Garagardotegien erdiak (10) beraien produktuak esportatzen dituzte. Hamar fabrika hauetan ekoiztutakoaren %27a nazioarte mailan saltzen da. Euskadin ekoiztutako artisau-garagardoaren osoko esportazio-kuota %19koa da. Euskal garagardoa jasotzen duten herrialde nagusiak Frantzia, Finlandia, Errusia, Portugal, Erresuma Batua eta Alemania dira.

“%54a Euskadin kontsumitzen da; %19a esportatu egiten da”


Azkenik, bederatzi dira instalazio propiorik ez daukaten markentzako ekoizten duten garagardotegiak. Euren batz besteko ekoizpenaren %26a suposatzen du eta 28 enpresentzako fabrikatzen dute. Baliteke zifra honetan bizkoiztasunak egotea, baina bezeroen izenak ez galdetzean ezinezkoa da jakitea zein enpresek alokatzen dizkieten bere fabrikak gainontzeko enpresei.



ETORKIZUNERAKO GAKOAK


Artisau-garagardoaren egungo egoera hobeto ezagutzeko oso garrantzitsua da garagardoegileen ikuspuntua zein den jakitea, ea nola ikusten duten haien burua eta sektorea datozen urteetan. Horregatik, bi galdera egin zitzaizkien: bere proiektuaren garapen onuragarriarako gakoei buruz batetik; eta bestetik, panorama nola ikusten duten hemendik hiru urtera.

Modu horretan, item desberdinek beraien garagardo-proiektuan zeukaten garrantziaren arabera 0tik 10era puntuatzeko eskaera luzatu zitzairen. Hogei garagardotegien bataz bestekoa egin ondoren horrela sailkatu genitzake puntu gehien dituztenetik gutxien dituztenerarte:



Zazpitik gorako bataz besteko emaitza daukaten gaiak sektorearentzat garrantzitsuak diren adierazle dira. Hausnarketa sakonago baten, badira erantzunen polarizazioa handia eragiten duten galderak (erdiak handia, beste erdiak txikia), sektorean ikuspegi desberdinak dauden erakusle.

Bestalde, garagardotegiek hemendik hiru urtera begira daukaten ikuspegia ere jaso zen, bai proiektuari dagokionez, baita orohar sektoreari buruz ere. Horrela, hiru urtetan zenbait premisa gertatuko ote ziren galdetu zitzairen eta ondoko erantzun hauen artean aukeratu beharra zeukaten: bai / ez / agian



Euskadin 2018an artisau-garagardoak bizi duen egoerari buruzko txosten tekniko honek garapen bidean herrialde osoan zehar hedatzen ari den sektore baten argazki fidagarria aurkezten digu.

Bere elaboraziorako Euskadin garagardoa lantzen duten fabriken %91ak parte hartu du, ondorioz ekoizpena, bertako lehengaiak, salmentak, enplegu-sorkuntza, banaketa eta etorkizunerako ikuspegia bezalako ezparruetan errealitatik oso gertu dauden emaitzak lortuz.

Datu hauek Euskadin artisau-garagardoak bizi duen egoera lehenengo eskutik ezagutzeko aukera ematen digute eta, batez ere, etorkizuneko norabidea trazatzen laguntzen digute.



www.basquebeer.eus

ege@basquebeer.eus

El presente informe técnico ha sido
realizado por la empresa
Beer Events SL organizadora del
Barcelona Beer Festival